

...eta kitto!

690 zkia. 2009-IX-18

ASTEKARIA



Gazte solidarioen uda Perun

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



DEITU. 943 20 67 76
943 20 09 18

Argazkidendak • Argiztapenak • Arzteak • Arzteak • Arzidegiak •
• Aseguruak • Aseoriak • Auzolanak • Auzolanak • Barneak • Barneak •
• Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bixitegiak • Bulego fresneria
• Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkartek •
Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoak • Este-
tika • Farmaziak • Ferreteriak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-
riak • Garagardotegiak • Garraioak • Gasolindegia • Gozokiak • Gozo-
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Hautzaindegia • Euskaltegiak •
Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegia • Industria • Informa-
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jantzidendak •
Jatetxeak • Jostailudendak • Kafetegiak • Kalefakzioa • Kirolendak • Kol-
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpresoreak • Konstruk-
zioa • Kristaldegia • Leihoak • Lentzeria • Liburutegia • Loradendak •
Makina saltzaileak • Margoak • Markak • Masajeak • Medikuntza • Ana-
lisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozimenduak
• Fisioterapia • Logopedak • Oftalmologia • Otorrinoak • Podologia •
Psikiatria • Psikologoak • Mertzuriak •
giak • Optika • Ortopedia • Pertsio-
• Prentsa eta aldizkariak • Publizitate
Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta
terria • Toxikologia • Zeramika •

Zure aukera bakarra!

2010eko
GIDA
prestatzen
dihardugu...



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

ETXEZULO.- Etxezale, etxetik gutxi irtetzen duena. "Etxezulo, laguntzara agertzen ez dan bat dozu gizona, ezkondu dan ezker".**ETXI-ETXIXAN.-** Goitik behera, zehatz-mehatz, behingoz. "Hobeko dozu aittari dana konfesatzia etxi-etxixan parkatu deizun".

ESKUTITZAK

GIPUZKOA AURRERA

EHUko Udako Ikastaroetan hartu dut parte, zehazki Xabier Barandiaranek gidatutako, eta Gipuzkoako Diputazioarekin batera antolatutako, "Ciudadanía activa y nueva cultura política" izeneko ikastaroan. Zoriondu nahi nituzke eskainitako mailagatik eta han jasotako hausnarketarako balioko digulakoan nago.

Ikastaroaren azken ekitaldian, "Cooperación público-privada" arloaren barruan, mahai-ingurua egin zen Gipuzkoa Aurrera proiektua eztabaidatzeko. Bertatik ondorioztutakoa honako hau izan zen: Barandiaranek proiektua "lobby"tzat izendatu zuen (hau da, itzal handiko lagunez osatutako taldea, interes jakin batzuen alde egiteko antolatzen dena). Arantza Tapia Mugikortasun eta Lurralde-antolamendurako diputatua eta Gipuzkoa Aurrerako koordinatzaileak esan zuen, demokrazia ordezkatzailan gaudela onartuta, bizi dugun egoerarekin (krisia) zaila egingo zitzaieela eurei soluzioak ematea eta horregatik jotzen dutela Gipuzkoa Aurrera osatzen duten agenteen (Diputazioarekin batera, Kutxa, MCC, Adegia eta Merkatal Ganbara) "laguntzara"-ez parte hartzera.

Entitateen aurkezpenaren eta proiektuan zergatik zeuden azaltzerakoan, agian Eizagirre Merkatal Ganbarako ordezkaria kenduta, beste guztiei interes partikularra igarri zitzaieen proiektuan parte hartzeko. Susmo hori baieztatu zen hurrengo eguneko prentsan Odon Elorza Donostiako alkateak argitu zuenean Donostiako Udalak parte hartzen zuela Gipuzkoa Aurreran egin daitezkeen proiektu batzuk Donostialdean egingo direlako.

Aurrekoa ikusita, hona hemen galdera batuk: Zergatik ez da jo agente sozial gehiagoetara proiektua osatzerakoan? Debabarrenatik, Gipuzkoa garen neurrian,

marjinatuak sentitzen gara beste behin. Non daude Zentro Teknologikoak? Azpiegitura horretan Estatuko Sare onena izanda ere, non daude horren emaitzak? Uste dugu ordua dela fruituak ematen hasi eta enpresa-ehunari ekarpenak egiteko. Faltan botatzen da ere, Eibarren lagunartean diogun moduan, "txirbila zapaltzen duen jendea", auzoetako eta herrietako eguneroko errealitatea bizi duen jendea: benetako Gipuzkoa.

Ez zuten txintik esan giza-politiketan egin beharreko hobekuntza/inbertsioei buruz (Kutxa eta MCCkoek, ezer gutxi). Urruti gaude Europako herrialdeek dute-negatik eta, ispiilu horretan gure burua begiratzeaz gain, euren mailara iritsi behar gara edo ahalegindu behintzat, ongizate politiketan (gero eta nagusi gehiago, krisiak lagako dituen ondorioak, etb.) inbertituz eta benetan ahalegin publikoak eta pribatuak batuz arlo horietan -hor ere negozioak ezarri eta lanpostuak sortu beharko baitira: esango nuke etorkizuneko lana/negozioa nitxoetako bat hor egongo dela-. Guzti horri laguntzeko beharrezkoak dira politika fiskal ausartak (bakotzak nahi duena uler dezala) eta publikoak eta pribatuak elkarlanean jardutea benetan.

Ez dugu nahi motorra sal gaitzaten; motorra egiten parte hartu nahi dugu. Joan Subirats irakasleak bere hitzaldian esan zuen moduan, gizartea gero eta profesionalizatuago egon, orduan eta gutxiago lagako da jendea manipulatzeko eta gehiago hartu nahiko du parte.

Lerro hauekin "Gipuzkoa Aurrera" enterearen inguruko hausnarketa bilatzen dut: zein izan beharko litzatekeen bere papera eta zelan bihurtu eragile eta parte-hartzailea esparru guztietan, benetan gipuzkoarra izateko.

FELIX ERRASTI (EIBARKO ELKARKIDETZA MAHAIA)

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Museo bat zabaldu du oraindik orain Real Sociadadek: bisita gidatuak erdaraz dira, alegia, gaztelaniaz; ez dago bisita gidaturik euskaraz. Nik esango nuke presidentek entzuna edukiko duela nonbait euskaldunek es dutela euren hizkuntza museotarako nahi, horregatik lagako zuela kanpoan"

(Koldo Izagirre, idazlea)

"Justizia ezinezkoa da eta hala deitzen duguna burugabekeria hutsa: bere eskuetan jausten denari zigortzen badio ere, ihes egiten dionari saria ematen baitio. Zenbat gaizkile daude justiziatik beharrezko denbora ihes eginda eman dutenak eta, delitua onartuta ere, preskribatu duelako ordaindu ez dutenak?"

(Javier Marias, idazlea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOA
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

USARTZAKO ERROMERIAKOEN BAZKARIA

Urriaren 4an Krabelin jatetxean bazkaria egingo da, sasoi batean domeka arratsaldeetan Usartzan egiten zen erromerian parte hartu ohi zutenekin. Bazkaria 14.30etan hasiko da eta joan nahi duenak Krabelinen bertan eman dezake izena (34'50 euro), 943202727 telefono zenbakian.

ALDERDI EGUNA

EAJ alderdiko hiri batzarrak aditzera eman duenez, hilaren 27an Forondan ospatuko den Alderdi Egunera joateko autobusak antolatu dituzte bazkideentzat (9 euro). Irteera Ego Gaineko autobus geltokitik izango da, 09.00etan eta buelta, berriz, 18.30etan izatea dago aurreikusita. Izena eman nahi duenak 943120616 edo 607771650 telefono zenbakira deitu dezake.

IKASTURTE HASIERA

Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak datorren astean, astelehenean hasiko du ikasturtea, 12.00etatik aurrera garatuko den programarekin: ikastetxeko zuzendariari ongietorria eman ondoren, Cristóbal Villasantek inaugurazio-hitzaldia emango du: *'Oportunidades y necesidades de Energías Renovables: posicionamiento de Tekniker'*. Jarraian, ikastetxean beharrean 25 urte bete dituztenei oroigarriak banatuko dizkiete eta tituludun ikasleei diploma bana emango diete. Ekitaldia Miren Arantzazu Bermejo Gipuzkoako kanpuseko kalitate-zuzendariak agurtuko du.



Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina

AURREKO URTEOTAN BAINO LEHEN ABIATU DA AURTENGO GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA-KANPAINA. Astelehenez geroztik eta urriaren 31ra arte martxan egongo den kanpaina ohiko gripe arruntaren aurkakoa da, baina mundu mailan hedatzen diharduen A gripea dela-eta, Osakidetzak aurrerago beste txertaketa-kanpaina bat

martxan ipintzeko asmoa duela aurreratu du. Orain martxan dagoen txertaketa-kanpaina ohiko arrisku-taldee dago zuzenduta: 65 urtetik gorakoei, diabetikoei eta gaixo kronikoei (biriketakoak, bihotzekoak, gibeletakoak eta giltzurrunetakoak). Txertoa ipini nahi duenak bere ohiko osasun zentrora joan beharko du, horretarako txanda eskatzera.

Hirigintzako batzorde aholkularia

HIRI ANTOLAMENDURAKO AHOALKULARITZA BATZORDEAN PARTE HARTU NAHI DUTEN ELKARTE, TALDE ZEIN LAGUNEK hilaren 22ra

arte izango dute horretarako aukera, eskaera Pegoran aurkeztuta. Behin eskaerak jasotzeko epea itxita, hamar egun izango dira alegazioak



aurkezteko eta, ondoren, batzordea modu formalean osatuko dute. Batzorde berri horrek ezin izango du erabakirik hartu, baina aholkuak emateko ahalmena izango du. Udalak bultzatutako ekimenaren helburua, udalerrri mailan garrantzi handia duten hirigintza arloko proiektu eta politikan herriko elkarteen partehartzea bultzatzea da.

Arrateballe Bizirik pozik jendearen erantzunarekin

ARRATEBALLE BIZIRIK PLATAFORMAKOAK GUSTORA DAUDE ARRATEKO JAIEN INGURUAN JASOTAKO ERANTZUNAREKIN. Aldi berean, *"eskerrak eman nahi dizkio Eibarko jende guztiari Arrate egunean eskainitako sostenguarengatik"*. Ehunka sinadura batu ziran Erisonon Tekniker enpresak egiten diharduen eraikinaren kontra. Horrez gain, pankarta, argazki eta orrien bitartez, proiektua zelan eraman den aurrera esplikatu zitzaizaien interesatuei: *"Ingurugiro ikerketarik ez dela egin eta herrian badirela alternatibak (Matsaria, Ibur-erreka...), izan*

ziren azpimarratu genituen punturik nabarmenenak", diote plataformatik.

Bestalde, mobilizazio kanpainarekin jarraitzeko, sinadu-

ra gehiago batzeko mahaiak jarriko dituzte hiriko leku batzuetan eta orriak zabalduko Eibarko hainbat denda eta tabernatan.



Kontabilitate Plan Orokor Berriari buruzko ikastaroa

DEBEGESAK KONTABILITATE PLAN OROKOR BERRIARI BURUZKO KURTSOA ANTOLATU DU Debegesaren egoitzan urriaren 6 eta 8rako. Kurtsoaren helburua Debabarreneneko enpresetako administrazio arduradunen zalantza

eta galderak erantzutea da. Horrela, Kontabilitate Plan Orokor berriaren inguruko aldaketak zeintzuk diren ezagutuko dute parte-hartzaileek.


Ikastaroan zehar ondorengo gaiak landuko dira: Kontabilitateko arauen aldaketaren erre-

pasoa; Kontabilitate Planaren Kontzeptuen markoari erreparasoa; Epigrafeen aldaketaren erreparasoa; Kontabilitate kontuak eta balorazio arauak; Urteko kontuen eraketarako arau berrien erreparasoa; Kontabilitate Plan Orokorra enpresa txiki, mikroenpresa eta ertainetan nola aplikatu; eta Kontabilitate Plan Orokorren egokitze eta sortutako arazoaren erreparasoa.

Kurtsuak 10 orduko iraupena izango du egun bitan banatuta, goizeko 08.30etatik 13.30etara. Ikastaroaren kostua 130 eurokoa izango da eta interesa dutenek pymes@debegesa.com helbidera idatzi edo 943-820110 (Silvia Gil) telefonora deitu dezakete. Informazio gehiago www.debegesa.com webgunean.



Debegesak antolatutako hamar orduko iraupena duen ikastaroa.



Gorka Errasti Bernedo

...eta pertsonak etorri ziren

Nola aldatu dezakegu jendearen pentsamendua?

Batzuetan posible iruditzen zait, baina beste batzuetan... utopia, eta krisi sasoi honetan, are gehiago!

"Etorkinek lana kentzen digute. Etorkinek dirua batu eta euren herrialdeetara eramaten dute (Eto'ok eta Kakak adibidez bai, baina besteek ez hainbeste, lasai). Etorkinek langabezia kobratzeko eskubiderik ez dute. Etorkinek ez dute kotizatzen. Etorkinek osasun zerbitzuak kolapsatzen dituzte..."

Badakigu, inmigrazioaz, eguraldiaz moduan, edonorrek hitz egin dezakeela, baina, hainbeste ideia oker daude hortik bueltaka!

Inork ez du pentsatzen lan egin dezaketen etorkin gehienak lanean daudela eta kotizatzen dutela (beraz, hona hemen langabezia kobratzeko eskubidea). Askok nahi ez dituzten lanak egiten dituztela (nahiz eta ikasketak maila oso altuak izan batzuk). Zahar eta haurren zaintza arduratzen direla, emakumeak lan mundura gerturatzea lagunduz. Pentsioen iraupena euren ekarpenengatik 10 bat urte luzatu dela. Estatu mailan, sei ezkontzatik, bat mixtoa dela (EAEn 10etik bat; badakigu hemen moteltxoagoak garestuak kontu hauetan). Beraz, amodioa ere ekarri dute!

Mesedez, ez dira ez zerbaki ez langile robotak; pertsonak dira, nahiz eta batzuei asko ez gustatu. Beharrak eta nahiak dituzten pertsonak dira. Badago esaldi oso esanguratsua inmigrazio arloan: *"Langileak behar genituen... eta pertsonak etorri ziren"*. Kolore askotakoak eta kultura oso ezberdinekoak; baina, azken finean, zu eta ni bezalako pertsonak.

Laguntza eske Sagardo Egunerako

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK SAGARDO EGUNA EGINGO DU URRIAREN 3-AN. Sagardo Egun berezia aurreko edizioekin alderatuz, izan ere, aurten egun osoan zehar egongo da sagardoaz, pintxoaz eta giro apartaz gozatzeko aukera.

Den-dena ondo irten eta egun zoragarria pasatzeko, bestetik, lan handia egongo da atzean. Horrela, ...eta kitto! Euskara Elkarteak beso-zabalik hartuko lituzke egun horretan lan egin nahi duten bolondresak. Interesa duena ...eta kitto!-rekin kontaktuan ipini daiteke 943 206776 telefonora deituz, elkartea@etakitto.com helbidera idatziz edo Urkizu 11 solairuarteran dauden bulegoetatik pasatuz.



500.000 eurotako laguntza enpresen lekualdaketarako

UDALAK HERRIKO ENPRESAK INDUSTRIA POLIGONOETARA LEKUALDATZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK zehaztu ditu. Iaz egin zen lehen aldiz horrelako ordenantza bat, eta aurten ere eskainiko da laguntza hori. Aurtengoan 500.000 euroko aurrekontua izango dute laguntzek eta hainbat aldaketa egin dira iazkoekin alderatuta.

Mertxe Garate Industria Komisioko presidentek plenoan aipatu zuenez, *"aldaketa garrantzitsuena, etxebizitzaren azpialdean egon eta hirigintzari dagokionez bere kokapenarekin bideragarria izanik, bere bolumen edo kokapen konkretuagatik inguruan arazoak sortzen diren aktibitate ekonomikoetarako dagokienez da"*.

Industria edo ekoizpen izaera gabeko enpresak dira Garatek aipatutako hauek (elektrizitatea, aroztegiak, zerbitzuak), baina hirian aberastasuna eta lana sortzen dutenak. *"Mota honetako enpresek ezin izango zituzten beste modu batean lortu diru-laguntza horiek"*. Laguntzak jasotzeko izena emateko epea irailaren 9an hasi zen eta urriaren 30era arte egongo da zabalik. Eskarerk Pegoran jaso daitezke.

asteko
500
datua

lanpostu sortuko dira El Corte Inglés eta Eroski merkataritza gunee berriei esker: lehenengo kasuan 350-400 lagunendako lanpostuak aurreikusi dituzte eta Eroskik, berriz, denda handitzearekin batera 85 lagun berri hartzea espero du.

Helduendako ziburu-zaurak ailegatu dira

AMAÑAKO TRENBIDE GAI-NEAN SORTUTAKO PASEALEKUAK AURRERANTZEAN paseatzen ibiltzeko baino zer-bait gehiagorako balio izango du, bertan ipini baitituzte gimnasia egiteko balio duten helduendako lehenengo jokoak. Ziburu-zaura modukoak izanda ere, bestelako funtziorik ere betetzen dute. Izan ere, bakoitzak gorputzaren atal bat lantzeko balio du: batzuek eskuak zein besoak mugituarazi eta indartzeko balio dute, beste batzuek zangoei eragiteko, beste batzuk bizikleta-estatiko modukoak dira... edozein modutan ere, aisialdian gorputza piskat astintzeko balio dute denek. Berez edozeinek erabiltzeko moduko jokoak izanda ere, batez ere zaharrenentzat pentsatuta daude, errehabilitazio leuna eta aisialdia batzeko aukera ematen die-eta.



Beste toki askotan arrakasta handia izan dute gimnasia egiteko jokoak.

Amañan uda honetan ipinitako 10 joko berriak proba modura erabiliko ditu Udalak, jendeak nola erantzuten duen ikusteko. Gustura erabiltzen direla ikusiz gero, herriko beste parke edo toki batzuetan ere horien antzerakoak ipintzeko aukera aztertuko luketeela diote Zerbitzu saileko arduradunek. Oraingoan, behintzat, badirudi jendeak oso ondo hartu duela

ekimen berria. Beste herri batzuetan horrelako jokoak aurretik ere ipinita daude eta oso harrera ona izan dute. Udalak 9.000 euro erabili ditu Amañan joko horiek ipintzeko. Dena dela, beste parke batzuetan ere txikienendako jolasguneak konpondu eta berritu dituzte: Egigurentarren, Ardantza, Urki-Kurutzekua eta San Kristobalen egin dituzte aldaketak.

Oin dala hamar urte

1999-IX-17 / 285. ZKIA.




- Trenbideko Ardantzako zubixa egin zan, ordura arteko pasonibelaren tokixa hartzera etorriko zana. Lan guztiak hiru egunetan egin ziran, barixakuko gabatik domeka gabera, eta tarte horretan ez zan trenik pasau.
- Azitaingo jaixen errepetiziñuan EH SUkarra herriko taldiak jo eban, Lekeitioko Parasma eta Ondarruko Urkaturrekin. Auzo horretako Felix Mendoza eta Dolores Berasaluze ezagunak urte hartan hil ziran.
- Simon Aldazabal sari nagusixaren 4. ediziñua irabazi eban Juan Aldaik, aurreko hiru urtietan egindakuari jarraituz. Oinguan, gaiñera, marka barrixa be egiñ eban, ibilbideko 5.530 metruek 25' eta 17"tan osatuz.
- Jesus Mari Zenitagoia margolarixak Espinosa de los Monteroseko X. Pintura Lehiaketa Nazionala irabazi eban. Euskaldunak izan ziran nagusi goizeko lehen orduetatik ixa gaberañño luzau zan ediziñño horretan.

Oin dala 365 egun

- ...eta kitto! astekarixa gero eta indartsuago eguala izan zan irakorlien artian egindako inkestaren emaitza nagusixa. 14.000 lagunek irakortzen dabe Eibarren gehixen jarraitzen dan komunikabia.
- Donostiako Zinemaldixaren barruan, "Haizea eta sustraiak" Iñaki Agirre eibartarrak ekoiztutako dokumentala emon eben. Honen ardatza 1975ian Francok agindutako ejekuziñuak osatzen eben.
- Arcadio Benitez herriko PSE-EEko idazkari barrixa izendau eben, komiteko kide guztiak ahobatez onartuta. Karguan Iñaki Arriola ordezkau eban Benitezek, alkate-ohia Gipuzkua maillara pasa zalako.
- San Andres parrokiña pareko arbola bixak moztu eben eta Errebal Merkatu Plaza ondokuak be bota ziran. Parrokiñaren parekuak arrisksuak ziran jendiarentzat, enborretako oiñarrixendako altuegiñak ziralako.

2008-IX-19 / 648. ZKIA.





Coliseoak zinea eskainiko du

EIBARKO UDALAK ETA ZI-NEMAREN ZABALKUNDEAN BEHARREAN DIHARDUEN ARETO SL ENPRESAREN ARTEAN LORTUTAKO AKORDIOARI ESKER, Coliseoa zinema komertziala eskaintzen hasiko da urriaren hasieran: areto nagusia (490 lagunendako tokiarekin) zein multizinerako dauden beste bi areto txikiagoak (bakoitzak 80 lagunendako tokia dauka) erabiltzea aurreikusita dago eta emanaldiak barixaku, zapatu, domeka eta astelehenetan izango dira (baita jai egunetan ere) eta sarrearen prezioa 5 eurokoa izango da (astelehenetan 4 eurokoa, ikuslearen eguna izango dela-

ko). Asteburuetan 3 emanaldi eskainiko dute egun bakoitzeko eta astegunetan, berriz, emanaldi bi. Programazioa urte osokoa izango da eta arlo guztiak asetu nahi dituzte: zirkuito komertzialetan ohikoak diren filmeekin batera, umeendako proposak diren pelikulak zein zirkuito nagusietatik kanpo geratzen diren beste batzuk emateko asmoa dagoela aurreratu dute arduradunek.

Urrirako zine eskaintza zein izango den lotuta dago honezgero: urriaren 2tik 5era bitartean 'Malditos bastardos', 'Vicky el Vikingo', 'Millenium' eta 'Qué les pasa a los hombres' ikusteko aukera izango da.

Beste hildako bat lan-istripuan

EL CORTE INGLÉS BERRIA EGITEKO ERAIKUNTZA LANETAN GERTATUTAKO ISTRIPUAREN ONDORIOZ, atzo goizean, 11.00ak aldera, beharginetako bat hil egin zen. Istripua nola eta zergatik gertatu zen argitu barik zegoen lerro hauek idazteko orduan, baina badirudi hildako beharginak fatxadako harlauzak ipintzen ziharduela beharrez eta oso altuera handitik (20 bat metrotik) behera amildu eta bertan hil egin zela.



Altuera handitik erori ei zen hildako behargina. / EKHI BELAR

anzorik anzo



Ibargain eta Matsariarako planak aurrera


Ibargain kalea eta Matsaria hasierako inguruaren hirigintza-berri tapenerako proiektuak aurrerapausoa eman du, Udalak xehetasun-azterketa onartu ostean. Planaren arabera, Ibargain kaleko hainbat eraikin botako dira, Pagaegi kaleko kaleburutik hasi eta Matsaria hasieraraino, Orbea industrialdearen ondoan. Botako diren horiek "etxebizitza zahar eta txikiak, jarduerarik gabeko tailerrak eta ortuek hartutako lur-eremuak" direla adierazi dute. Hirigintza arloko ekimena garatzearen ondorioz, Estaziño kalearen hasiera eta Pagaegi batu egingo dira, bide alternatibo baten bitartez, eta ehundik gora etxebizitza izango dituen egoitzaldea sortuko dute. Horrela, gaur egun nahiko hondatuta eta lantegi pabiloi zaharrez betetako gunea berreskuratzeko aukera izango da. Proiektuaren arabera, hirigintza-eraiki-garratasuna 7.492 metro karratukoa izango da: horietatik 5.252 egoitzalderako izango dira eta beste 2.240 metro karratuak, berriz, garajeetarako. Horrez gain, proiektuak eremu libreak ere aurreikusten ditu eta Orbea lantegiak sasoi batean bete zuten guneari begira egongo den parke publiko bat.

eibar kaleka

Arikitzaneko zubia

Arikitzaneko zubia Arragueta eta Ibarkurutze batzen diren puntutik Bidebarrietaraino doa, perpendikularrean eta, behin Bidebarrieta zeharkatuta, Urtzailera du jarraibidea.

Pegora kopurua: 1. Erroldatutakoak: 22.



Bide berri bat ireki du Maite Arroita Jauregik txeloarekin. Baina orain ez da Maite; orain Mursego da. Saguzaharra. Animalia horiek bezala, bere txeloak eta bestelako tresnek igorritako musika kobazulotik irten da, eta entzuleen belarrietara helduko da irailaren 25ean Coliseoan, 22.00etatik aurrera.

- Mursego izenarekin grabatu duzu zure diskoa eta izen horrekin hasi duzu, modu batean esateko, bakarkako ibilera musika munduan. Portugesez saguzaharra esan nahi du 'mursegok'. Zergatik erabiltzen duzu berba hori?



Ez dauka aparteko azalpenik. Gustatzen zaidan berba da, beste barik. Bestela ere, honen erabileraren zergatiaren istorioa pixkat 'ñoñoa' da. Lagun batekin Berlineko parke batean nengoen eta gustatzen zitzaizkigun berbez ari ginen hizketan. Horrela, berak 'mursego' berba gustoko zuela esan zidan. Ondoren, uda aurretik bakarrik jotzeko eskatu zidaten hemen eta izen artistiko baten beharra edo ikusi nuen. Hortik dator orain 'Mursego' bezala ezagutaraztea. Bestetik, saguzaharrak gustuko animaliak ditudala esan daiteke, eta baita portugesa ere.

- Izen artistikoa portugesa duzu, baina grabatu duzun diskoan beste hizkuntza asko garatzen dituzu.

Euskara, ingelesa, errusiera antzeko zerbait, portugesa... lantzen ditut. Nik ez dakit ez errusieraz, ez portugesez, eta ingelesez ere ezer gutxi. Gauza da sortutako doinuei hizkuntza horiek egokitzen zitzaizkiola uste nuela. Adibidez, Tanqueray abestiari poloniera edo errusierazko berbak sartzea beharrezkoa ikusi nuen; horrela, Goo-

MAITE ARROITAJAUREGI, musikaria:

“Klasikotik at, beste musika mota bat egin daiteke txeloarekin”




glen sartu eta bertan aurkitutako errusierazko berba batzuk transkribitu nituen. Horrela irten zen, errusieraz ezer jakin barik.

- Zure doinuei ahotsa jartzea beharrezkoa ikusi zenuen edo dena elkarrekin joan zen prozesua izan zen?

Ahotsa beste tresna bat moduan ikusten dut. Ez da mezu bat igortzea edo horrelako zerbait soilik, baizik eta ukitu estetiko bilatzen saiatzen naiz ahotsarekin. Portugesez egitean joera estetiko bilatzen dut; errusieraren kasuan, doinuek hori eskatzen zuelako landu nuen. Aukera estetiko delako esango nuke.

- Erabiltzen hizkuntzak antzak badira, diskoan eta kontzertuetan erabiltzen dituzun musika-tresnak ere bai...

Enbolo txirula, marakak, Casio pianoa (erritmoa eramateko)... erabiltzen ditut, besteak beste. Musika egiten ari naizen bitartean, 'Loop Station' pedalaren bitartez egindakoa grabatzen joaten naiz geruza ezberdinetan, eta pedalaren bitartez grabatutako hori erreproduzitzen dut behar dudanean. Guztietatik, pedala izan da maneiatzea gehien kostatu zaidana; izan ere, dena momentuan egiten dut, zuzenean, eta denbora



kontrolatu beharra garrantzitsua da, ondo neurtuta egon behar delako noiz hasi eta noiz amaitu. Hala ere, praktikarekin eta egin ahala erabilera hobetzen duzu.

- Txeloa da zure musikaren oinarria. Hasiera batean musika-tresna klasikoa dela antzematen da, baina zuk egiten duzun musika ez da inondik inora klasikoa.

Musika klasikoa ikasi dut txikitatik, baina beti gustatu zait beste musika mota batzuk, orain egiten dudana kasu. Modu batean esanda, kontserbatorioen akademizismoari kontra egitea bezalakoa da egiten dudana, eta erakutsi nahi dut, nahiz eta tresna klasikotzat jo, txeloa-

rekin beste musika bat egin daitekeela. Mugak apurtzea bezala izan da; txeloa ez sailkatzea soilik estilo batetan.

- Adituen kritika oso onak jasotzen dituzu. Askok musika esperimentalarekin egiten duzun diote. Zer deritoxozu?

Nire lanak izan duen harrerarekin oso pozik nago. Bestetik, esperimentalarekin etiketa bat besterik ez dela uste dut. Izan daiteke, esperimentu asko egin ditudalako, baina niri berdina zait nola deitu. Baliteke musika garaikide bezala hartzea abesti batzuk, baina abestiak ere ezberdinak dira euren artean. Nik oso pop-eroa ikusten dut nire musika.

Juan dan astian Udalak jakitera eman zebanez, ez da Errebal Center egingo. Hainbeste bueltaren ostian plan barik gelditu da herriko gune hori eta, lurra berreskuratuz gero, proiektu barri bat garatu biharko dau bertan Udalak. Printzipioz, sentsibilidade danak jasoko dittuela aipatu dau Udalak.

Zer egingo zenduan Errebalen?



MIKEL OSORO
23 urte
ikaslia

Azokia egingo neuke, Rialtokuak hara barrero be bueltatzeko. Lehen zeguana modokua, baiña berrittuta. Azpitan, bestetik, parkiña, hor inguruan bizi diranerako doakua edo kuota txiki batekua, eta beste zati bat azokara doiazenendako. Merkataritza gune nahikua dakagu Corte Inglesakin.




JOSU FIGUERAS
27 urte
illeapaintzaillia

Parke berde bat egingo neuke, berdia esaten dotenian bedarrakin esan nahi dot, eta horren azpitan doako parking bat. Gustauko jatan esatia be Udalak egindako promesak bete bihar zittuala, eta holan ez danez izan lotsagarrixa da gertatu dana, benetan.


REME ALONSO
40 urte
saltzaillia

Ez dot euki barririk Errebal ez dabela egingo, baiña holan bada, gustatuko jatan multizinema bat egittia, bestela Eibartik kanpora juan bihar garalako horren antzeko leku batera juan nahi badogu. Bestetik, txiki-park bat egittia be gustatuko jatan. Eskatzia libre danez, nik eskatu egitten dot.



OLATZ JUARISTI
33 urte
erizaiña

Parke bat egingo neuke nik, bedarrakin, horren faltia dakagulako eta umiak dittugunok igarriko dogulako. Horren azpitan doako parkiña egingo neuke. Halanda be, seguru nago zementua botako dabela horen gañian eta zeozer eraiki. Lotsagarrixa izan da Errebalen gañian gertatu dana.



Iriondo

Promozioak

Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR www.iriondodecoracion.com Tel. 943-741234

<table border="0"> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">90x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">459 €</td> <td style="font-size: small;">*Hankak prezioan sartu gabe</td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">135x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">684 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">150x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">684 €</td> <td></td> </tr> </table> <p style="text-align: center; color: red; font-weight: bold;">MUELLEDUN KOLTZOIA + VISCO</p> <p style="color: red; font-weight: bold;">NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOA</p> <p style="color: red; font-weight: bold;">100% LATEX KOLTZOIA</p> <p style="color: red; font-weight: bold;">HR KOLTZOIA + VISCOLASTICA</p> <p style="background-color: red; color: white; border-radius: 50%; padding: 5px; display: inline-block;">5 urteko garantia</p>	90x190	459 €	*Hankak prezioan sartu gabe	135x190	684 €		150x190	684 €		<table border="0"> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">90x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">272 €</td> <td style="font-size: small;">*Hankak prezioan sartu gabe</td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">135x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">378 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">150x190</td> <td style="background-color: yellow; padding: 2px;">438 €</td> <td></td> </tr> </table> <p style="color: red; font-weight: bold;">BAT BURDINEZKO SOMIER FINKOA</p> <p style="color: red; font-weight: bold;">DOUBLE OFFSET MUELLEDUN KOLTZOIA</p> <p style="background-color: red; color: white; border-radius: 50%; padding: 5px; display: inline-block;">5 urteko garantia</p>	90x190	272 €	*Hankak prezioan sartu gabe	135x190	378 €		150x190	438 €	
90x190	459 €	*Hankak prezioan sartu gabe																	
135x190	684 €																		
150x190	684 €																		
90x190	272 €	*Hankak prezioan sartu gabe																	
135x190	378 €																		
150x190	438 €																		

Aurreko astian luzaruan kalian bolo-bolo eguan zurrumurrua konfirmauta geratu zan Miguel de los Toyos alkatiak, Mertxe Garate (Hamaikabat) eta Eva Juez (EAJ) aldamenian zittuala emondako prentsaurrekuan: Errebalen ez da merkataritza gunerik eraikiko. Holan, herriko hirigintzarengan zein merkataritzarengan pisu izugarria euki bihar eban proiektua hankaz gora geratu da. Espero izatekoa zan moduan, barrixa kaleratu eta gaixaren gaiñian kezkatuta diharduen alderdi zein herritarren taldien erreakziñuak berehalakuak izan dira. Merkatu Plazia hartu eban eraikiña eraitsi ebela urte eta erdi pasau eta gero, hor geratu dan zuluaz zelan beteko dan ondiok argittu barik dago.

Udalak oin momentuan dakan lehentasun nagusixa lurzorua jabetza berreskuratzia da. Miguel de los Toyosek aurreko astian egindako agerraldixan aditzera eman ebanez, biharraren arduria euki bihar eban promotoria hori negoziatzeko gertu dago, alde bixen mesederako. Izan be, ointxe bide judicialari ekitea ez litzateke mesedegarria izango ez batzuek ez bestieki. Eibarko Udalak 2007xan adjudikau zetsan lurzorua Eibar Boulevard enpresari, PSE-EE alderdiko ziñegotzixen babesarekin, EAJ-EA eta PP alderdixen abstenziñuarekin eta EB alderdiko ordezkariaren kontrako botuarekin.

Proiektua adjudikau eta segiduan hautsak harrotzen hasi ziran, hamaika arrazoi medio. Alderdi politikuetatik zein herri-



tarrak sortutako taldietatik proiektuaren inguruko irregulartasunak behiñ eta barrio salatzen hasi ziran eta, kalian bertan, jendiak gero eta gatxagua ikusten eban Errebalen merkataritza gunebarrixa jasotzeko asmuak egunen batian gauzatzia, batez be obretan mugimendurik ez eguala begibistakua zalako. Halanda be, oin dala oso gitxira arte Udalak zein Eibar Boulevard-ek proiektuarekin aurrera segitzeko asmua azaltzen segitzen eben. Uztaillaren 15ian bertan obriari ekiteko biharrezkua zan

eskaeria aurkeztu eban Udalian promotoriak. De los Toyosek berak azaldutakuaren arabera, *“hori ikusitta, beharrak iraillian hasteko moduan izango zerala pentsatu genduan”*. Baiña aurreko astian esandakuen arabera, *“eskaeria jaso eta egun batzuetara, proiektua finanziau bihar eban bankuak, krisixa dala eta, horretarako gaitasunik ez zekala jakin genduan”*. Izan be, diru kontuekin ardurau bihar zan Hypobank bankua Alemaniako gobernuak interbeniduta dauka.

Gauzak holan, promotoriak

bere proposamena mahai gaiñian ipiñi eban: Errebalen *“zeozertxo”* egiñ eta hamendik urte batzuetara, *“krisixa pasatzian”* atzera be merkataritza gunebarrixa jasotzeko proiektuari heltzia.

Baiña Eibarko Udaleko ordezkariak ez eben begi onez ikusi promotoriaren proposamena eta, horregaittik, promotoriakin hasittako bidia puntu honetara aillegauta eten eta lurzorua berreskuratzia da ointxe daken lehentasun nagusixa. Eibarko Udalak Errebaleko lurzorua 650.0000 eurotan saldu eban eta egunotan lurzorua berreskuratzeko negoziatzen dihardue, *“behiñ lurzorua berreskuratzian bertan proiektu barriren bati ekin ahal izateko”*. Alkatiak hillebete honetan bertan, hillaren 30erako negoziatiñua amaittu eta lurra berreskuratzia posible ikusten dabela diñio eta hori lortzeko biharrian dihardue.

Krisixaren aitzakixa

Errebalerako eguan proiektua azkenian bertan behera geratzeko arrazoi nagusixa krisixa dala azaldu eben udalbatzako ordezkariak oin dala egun



Urte birako izan bihar zan behin-behiñeko plaziak azkenian denpora gehixago emon biharko dau Rialtoko eraikiñian. / SILBIA HERNANDEZ



Merkatu Plazako bihargiñak Errebaletik urten bihar izan eban, merkataritza gun e barrixa jasotzeko proiektua lotuta egualakuan. / LEIRE ITURBE



segidu biharko dabelako merkatu plazako dendarixak.

Dana dala, nahiko argi dago aurreikusitako merkataritza gun e barri eta modernorik ez dala jasoko, baiña lurzorua gaiñeko kalifikaziñua kanbixatzeko asmorik ez dabenez azaldu, oindiok be merkataritza erabillerako moduan izendatuta segiduko dau, "baiña epe laburrian aparkatzeko toki modura erabilli ahal izatia" gustauko litxakiela azaldu dabe Udal ordezkariak. Talde ezberdiñetako ordezkariekin egindako bileren ostian, etorkizunian gartu biharreko proiektuaren ezau garri nagusixak zeintzuk diran, behintzat, argi dagoz: "Merkataritza erakargarria izatia gain, inguruko bizilagunen dako aparkatzeko tokixa, aparkatzeko toki publikuak, aisialdirako guniak eta merkatu plazako merkatarixak atzera be hartzeko tokixa" euki biharko dituala azaldu dabe agintariak.

"Lurzoruagaittik 650.000 euro hartu dittue eta eraikiña botatziak bakarrik 500.000 euroko kostua zekala estimau eban udal teknikaixak"

Ardurak eskatzen

Atzo bertan Juan Luis Cristobal Eibarko EAko presidentiak prentsaurrekuan azaldu eban bere alderdixak gaixaren gaiñian egindako irakorketia. Bestiak beste, horrelako garrantzixa dakan gaixaren gaiñian egindako hankasartzia ikusitta Miguel de los Toyos alkatiak eta Mertxe Garate merkataritza ziñegotzixak "dimisiñua" presentau biharko leukiela azpi-

emondako prentsaurrekuan be, ardura politikuak eskatu nahi izan dittue: "Gure ustez euren buruaren gaiñeko kritika egiñ eta kargua laga biharko leukie. Zer gehixago bihar da dimititzeko? Txonta, Errebal, Erisono eta abarren inguruko irregulartasun ugarixak Eibarko herrixari kalte haundixak eragin detsez".

Edozelan be, azken egunotan promotoriarekin ez eze,

batzuk egindako agerraldixan, baiña Ezker Batua-Aralarrekuen iritziz, "krisixaren aitzakixa darabilte, baiña bestela be, gauzak ondo juanda be, obrak ezin ziran hasi gitxienez aurtengo ekaiñaren 24ra arte, re parzelaziñorako proiektuaren behin-betiko onarpena aillegau arte. Hortaz, krisixa egon ala ez, biharrek ezin zittuen hasi, horretarako bihar eban dokumentaziño osua ez zekelako".

650.000 eurotan saldutako lurzorua

Bestalde, lurzorua berreskuratzeke kondiziñuekin be kezkatuta dagoz: "Hasierako hitzarmenari jarraituta, Udalak 650.000 euro dirutan hartu bihar zittuan eta gaiñontzeko 3.552.000 eurak, barriz, ondusun higieziñetan, hau da, merkatu plaza barrixa eta parkiñeko pisuetako bat euredako hartuta. Baiña proiektua ez gauzatiarekin batera, Udalak azkenian 650.000 euro baiño ez dittu jaso".



Eraikiña hustu eta oso azkar bota eban, baiña harrezkero ez da mugimendurik ikusi obretan. / EKHI BELAR

marratu nahi izan eban. Horrez gain, proiektua atzera botatziarekin batera kaltetutako asko daguzela gogoratu nahi izan eban, "bestiak beste Gabonak gaiñian zirala eraikiñetik juatera bihartu zittuen merkatu plazako dendarixak zeñ Errebal inguruan biharrian diharduen beste dendari guztiak be".

Gaur goizian, barriz, Ezker Batuak eta Aralarrek alkarrekin

Errebal Plataformakuekin zein merkatu plazako merkatarixekin biltzen dihardue Udal ordezkariak, etorkizunera begira hartutako erabagixa ahal dan neurrixan behintzat danen edo gehixenen gustokua izateko. Momentuz, badirudi urte birako zabaldu eban Rialtoko merkatu plaziak aurreikusitakua baiño bitzta luziagua izan biharko dabela, oingoz behintzat han

Hillaren 30erako Udalak eta promotorak negoziaziñua amaittu eta lurzorua Udalaren eskuetara bueltatzia espero dabe

TEEN-
AJEA



Maila fisiko
onean egon
behar du
sorosle bat.
Ziaran
triatlolaria
ere bada.

Hondartza eta igerilekuak aisialdi leku garrantzitsuak dira uda osoan. Jendez gainezka egoten dira, baina dena ondo joan eta ezer txarrik ez pasatzeko hainbat pertsona daude atzean. Sorosleak dira horiek. Ane Ziaran, adibidez, Debako hondartzan egon da udan. Zorionez, ez da ezer larririk gertatu aurten.

ANE ZIARAN, soroslea:

“Soroslea laguntzeko prest egon behar da beti”

- Zelako lana egiten du sorosle batek?

Gu, adibidez, 10.15etarako Deban egon behar ginen goize-ro. Itsasoaren egoera begiratzeko, hondarraren egoera aztertzen gunden (ea zikina zegoen, ...), uretako eta kanpoko tenperaturak neurtzen genituen, uretan zeuden korranteak aztertzen genituen... Hori hasi aurretik. Berez, 11.00etan hasten ginen; orduan megafonia birtartez aurretik aztertutako denaren berri ematen genien hondartzara joaten zirenei eta 20.00ak arte egoten ginen han. Aurten, guztira, bost sorosle egon gara Debako hondartzan: bat dorretxoan, dorretxoaren azpian dagoen gunean bi eta beste bi hondartzan zehar pasiatzen, uretatik hurbil.

- Zenbat denbora egin duzu sorosle bezala?

Guztira hiru hilabete izan dira. Ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean amaitu.

- Momentu berezirik bizi izan duzue hondartzan?

Hainbat gauza gertatu dira uda osoan zehar, baina ezer larrik ez. Adibidez, gizon bati sorbalda dislokatu zitzaion, emakume bat harroketan erori eta aldaka apurtu zuen, esku-mutur haustura ere izan dugu... Bestetik, uretan aktibitate handia izan dugu; izan ere, 20tik gora erreskate egin behar izan ditugu. Ez da izan itotzen ari zirelako; estuasun momentuak izan dira batipat. Bestalde, salberen ziztada asko ere sendatu behar izan ditugu.


- Lehen aldia izan da sorosle moduan egon zarena?

Hondartzan bai, baina iaz Arrasateko igerilekuetan egon nintzen sorosle. Egia esan, oso gustuko dudan zerbait da.

- Zer behar du, batipat, sorosle batek?

Beharrezkoa da maila fisiko egokia izatea, erreskate bat egiteko orduan zu zarelako beste pertsona salbatu behar duena. Baina, bestetik, garrantzitsuena da sorosle bat beti egon behar dela besteak laguntzeko prest.

...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu



Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea
Eskaera:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa

Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^o Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15



- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Izaskun Rodriguez eta Laura Fernandez motxila egin eta Perura bidean jarri ziren ekainean. Kooperante bezala egon ziren bertan, Aldatzen eta Egoaiiak bultzatutako 'Alto Trujillo' proiektuan. Edonori gomendatzen diote horrelako esperientzia bat bizitzea eta ez daukate zalantzarik berriro bueltatuko direla esateko. "Pozik sentitu gara han".



Beste mundu bat ezagutzen

Egoaiakoek Perura kooperante bezala joatea proposatu zioten uda aurretik Izaskun Rodriguezi. Berak ez zuen zalantzarik izan. "Joatea nahi nuen bai ala bai, berdin zitzaidan etxean zer esango zuten". "Niri gehiago kostatu zitzaidan erabakitzea", aipatzen du Laura Fernandezek. Nola edo hala, ekainaren 27an Perura bidean jarri ziren 20 urteko neska eibartar hauek. Aldatzen eta Egoaiiak bideratutako 'Alto Trujillo' proiektuan parte hartzea izango zen euren betebeharra hurrengo hilabete eta erdian.

Udalak eskaintzen dituen 'Kooperante Bekekin' 1.500 euro lortu zituen bakoitzak, eta Peruko La Libertad departamenduko Trujillo eskualdeko Alto Trujillon ipini zituzten hantak. Giza-asentamendu bat dago bertan, duela bost urte

zabortoki bat zegoen lekuan, eta batez ere umeekin ibili dira eibartar biak. "Eurekin jolasten genuen, irakurketa tailerrak egiten genituen eta balleta irakatsi genien, besteak beste".

Zoriontsuak gutxiarekin

Alto Trujillon ezagututako jendea egunerokotasunean bizi dela azpimarratzen dute Izaskun eta Laurak. "Ez dute etorkizunera begiratzen. Adibidez, 16 urterekin umeak izaten dituzte eta ez dute pentsatzen aurrera atera izan ahaliko dituzten ala ez". Han dagoen pobrezia kontuan hartzekoa dela diote, "baina oso zoriontsuak dira duten gutxiarekin, ikusga-

rria da. Gainera, jendea zoragarria da, adeitsua, alai, irekia... Oso zoriontsuak dira".

"Trujillon bizi zen asturiar bati Alto Trujillon geundela esan eta ea zoratuta geunden galdetu zigun", dio bikoteak. Itxura denez leku arriskutsua da hura, "baina oinarrizko neurriak hartuz gero ez dago inongo arazorik. Bestetik, gu nahiko babestuta ibiltzen ginen bai familiakoekin, bai mojekin". Hala ere, gazteen bandak daukela diote. Bestalde, ume eta emakumeen aurkako biolentziaren arazoa azpimarratu dute biek. "Ez da hemengoa bezalakoa. Umeei errieta egiteko hemen ipurdian zaplastekoa ematen den bezala, han gerrikoarekin gogor jotzen zaie eta normalizat hartzen dute".

Erljioaren presentzia indartsua

Asko harritu die Izaskun eta Laurari ea eurak nola bizi diren zenbat alditan galdetu zieten. "Gure herrialdearen gainean galdera asko egin ziguten, ikusmin handia daukate horren gainean". Horren harira, Amerikaren kolonizazioa gogoan dutela ikusi ahal izan dute eibartarrek, "kolonizatzaileak

bertara lapurtzera, hiltzera eta abar joan zirela errepikatzen ziguten".

Kolonizatzaileek, bestetik, erlijio kristaua ere eraman zuten hara, eta horrek bai jarraitzen duela bizi-bizirik bertan bikotearen arabera. "Oso erlijiosoak dira eta ez dute ulertzen, gu bezala, Jainkoak sinesten ez duen jendea dagoenik". Fede handi hori euren beharrezanekin lotzen dute, "erlijioa gogoz hartzen dute zerbaitetan sinestu behar dutelako aurrera jarraitzeko". Hala ere, Alto Trujillokoek alaitasuna oso lagun dutenez, "meza eta gaintzeko ospakizun guztiak oso alaiak ziren, oso animatuak". Kristautasunetik at, bestalde, sekta asko dagoela diote Laura eta Izaskunek.

Berriz ere bueltatzeko goa dute biek ala biek. "Oso zoriontsuak izan ginen han. Hara egokitzen zara eta txipa aldatzen duzu, adibidez, arropa berdinarekin astebete egon ahal ginen". Bestela ere, edonori gomendatzen diote horrelako esperientzia bat bizitzea. Beraz, interesa duenak Egoaiari joatea besterik ez du eta guztiaren gainean informazioa jaso.



Gauza gutxiarekin zein pozik bizi diren azpimarratu dute bi kooperanteek.

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAIA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura



Hortz, konpaleia eta
konkribio harrak
Hundelako kontrol...

PROFESIONARIAREN TEL. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



Bista Eder
DENTISTAK - HORTZ KLINIKA

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90



RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika

abontza
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egungun, 6. behean - Telf.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20
Telf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.

San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

FISIOTERAPIA

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefonoa: 943 12 70 78



GGDA

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASBAGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 124 kolegiatu zenbakia



943 12 14 93
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

Psikologoak

AROR
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
 (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. esk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
 Artakalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak

OKULISTAK
 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea
 Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA 4 8
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 5 4
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate
Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es

Clínica Oftalmológica
RECALDE
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2º
 Tfnoa: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

PODOLOGO
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu
 deitu 943-206776 telefonora**

ASTEROKO MANIFESTAZIO EDO ELKARRETARATZETAN ATERATZEN DUDAN PRESOAREN IRUDIA ATERATZEAK TERRORISMOA GORATZEA EKARRI DEZAKE, ZIGOR KODEA ALDATU EZ BADA ERE?

Kode Penalaren 578. artikuluak, terrorismo delituak deskribatzen eta zigortzen dituen sekzioaren barruan, terrorismo delitu hauei **gorazarre egitea zigortzen du**. Dio zigortu egingo dutela terrorismoko delituen edo bertan parte hartu dutenen gorazarrea edo justifikazioa egiten duen pertsona oro, edozein komunikabide edo hedabideren bitartez, edo terrorismoko delituen biktimen edo senideen gutxiespen edo iraina dakarten ekintzak egiten dituen pertsona oro. Zigorra, urtebete eta bi urte arteko espetxealdia.

Beraz, hori da Kode Penalak zigortzen duen ekintza, eta gero **kasu-ka-su aztertu beharko da** gertakizun jakin bat gorazarrea edo biktimekiko gutxiespen edo iraina den, eta beraz zigortzeko modukoa den, ala ez. ETArekin zerikusia duten presoan argazkiak erakustea manifestazio batean edo kalean pankarta baten bitartez **orain arte ez da delitutzat hartu**. Alegia, nik dakidala, egun ez dago argazkien erakuste hutsa delitutzat hartu duen auzitegi baten epairik. Uda aurretik hona, ostera, egitate hauengaitik **prozedura penalak zabaltzen hasi dira**, Ministeritza Fiskalak eta Barne Sailak bultzatuta. Oraindik ez dago bat ere epaitua. Ikusi egin beharko da kasu bakoitzean zer ebazten den eta horrexegaitik epaitzeko orduan kontutuan izan beharko da argazki hori **zein testuingurutan** erakutsi den, zein hitzekin, zein helbururekin, nork erakutsi duen, zein asmorekin etab.



Elena Laka
abokatua



Bestalde, Barne Sailak beste lege bat ere aipatzen du debekuak argudiatzeko: **Terrorismoen Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legea**, Eusko Legebiltzarrarena. Honen 4. artikulua xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimen eskubideak errespetuz tratatu ditzaten zainduko dutela. Horretarako **neurri egokiak** hartuko dituztela jendaurreko **zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko**, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mesprexua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gosten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei. Baina Lege honek ez du esaten berez manifestazio batean preso baten argazkia erakustea delitua denik. **Bestelako adibide** bat ipiniko dugu lege honek ezartzen duen debekuaren izaera ulertzeko: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen du bere 27. artikuluan Eusko Jaurlaritzak publizitatea kontrolatzeko organo bat ezarriko duela, sexuan oinarritzen den pertsonen bereizkeria-mota oro erazteko. Horrek ez du esan nahi sexuan oinarritutako bereizkeriazko publizitatea erakustea (adibidez prostituzioa) delitua denik.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



Bengoetxea pelotaria txapeldun Lezon

KLUB DEPORTIBOKO ATZELARIAK TXAPEL BERRI BAT ESKURATU DU, Lezoko Josetxo Etxandi torneoaren XXXIV. edizioa bereganatuz. Oraingoan Alegiako Renobalesek lagunduzion aurreko koadroetan eta, senior mailako finalean, Idoatek eta Mendilibarrek osatutako bikoteari 22-20 irabazteko. Emaitzak argi erakusten duenez, neurketa bo-

rrokatua izan zen, kale gutxi-koa eta 80 minututik gora iraun zuena, 700 pilotakada baino gehiagorekin. Markagailuan aurretik joan ziren irabazleak ia partidu osoan, baina alde txikiarekin (7-3, 10-7, 11nako eta 16nako berdinketak, 19-16, 20-17, 20nako berdinketa). Eibartarrak partiduko onenaren saria jaso zuen Fernando Goñi, Goñi III.aren eskutik.

Bengoetxea eta Renobales, txapeldun sarietara. Aurrean, Joni emandako onenaren trofeoa.

Arrate eta CAI Aragón Ipuruan gaur 21.00etan


EZOHIKO ORDU ETA EGU-NETAN JOKATUKO DU ARRATEK hurrengo partidua. Gaur bertan hartuko du CAI Aragón indartsua Ipuruan eta Eibar-ko talde berriak ezustea eman nahiko du berriro, zapatuan Logroñon berdinduz egin zuen antzera. Julian Ruizek zuzentzen duen taldearen esperientzia faltak ez du esan nahi "talde erraza izango denik", zuzendaritzatik adierazi duten moduan behin eta berriro. Eibartarren hurrengo partidua Cangasen izango da eguaztenean, O'Gatañal kiroldegian 20.45-etan hasiko den neurketan. Frigoríficos del Morrado aurkari zuzena izan daitekeen kontrako partidua garrantzitsua da oso eibartarrentzat.

Malumbres Arrateren atezain-ohia etorriko da CAI Aragonekin.



Dur&Go Masters-a ere irabazi du Usabiagak

TOP EGITEA INORK EZ BADU LORTU ERE, PATXI USABIAGAK ESKALADA LUZEENA OSATU ZUEN eta berarendako izan zen Durangoko Landako Gunean jokaturako Climbing Masterra. Aurreko astean jokaturako Dur&Go lehiak orain arteko Dimarock Master-aren tokia hartu du; bere jarra aldatu ez duena eibartarra izan da eta, beste behin, podiumaren goi-goian ikusi dugu. Emakumezkoetan, Mina Markovic esloveniarrak izan zen garaile; maila horretan, dena dela, finalerako sailkatutako laurak lortu zuten top egitea. Eszenategi berean jokatu zen



Berdin dio zein lehiaketatan hartzen duen parte. Usabiagak bere sasoi onari eusten dio eta ohitura bihurtu du dagoeneko podiumera igozteko.

Euskadiko txapelketan, Gorka Karapeto gipuzkoarra eta Itziar Rodríguez arabarra izan ziren garaile.

Optika
CONTRATO AUDITIVO

Ondo entzun habete bitzera

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-aterketa doan
- Probetu audifonok doan 30 egunez
- %20ko deskontua edozein audifono erostenkean
- Gainera, erabilzaile banda, zure audifonoren zaterketa doan egin eta pila pakete bat emanitako dituzte

OPTIKA SEITU - JULIAN ETXEBERRIA, 13
20600 EIBAR - 943 70 02 30
(Bilatu gurez telefonoa Nazioak aldi)

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA


Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzua
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitalean hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Goi mailako Ponferradina-Eibar domekan



ZAPATUAN JOKATUKO ZELA AURRERATU BAZEN ERE, AZKENEAN DOMEKA ARRATSALDEAN jokatu da El Toralínen sailkapeneko goi-goian dauden bi taldeen arteko lehia. Hiru aste dira Kopako lehen kanporaketan eibartarrek bertan jokatu zutela. Orduan amore eman behar izan zuten azkenean penaltietan. Angel Viadero entrena-


tzaileak plantila osoa izango du prest partidurako, zigortutako Añibarro eta lesionatutako Cuevas kenduta. Garro, bestalde, taldera bueltatuko da. Ligako bosgarren partidua, bestalde, aste barruan jokatu du Eibar KEk: eguaztenean, hau da, hilaren 23an A Coruñaiko Montañeros taldea hartuko du Ipuruan, 20.30etan hasiko den neurketan.



Sutilek maila onean ekin dio denboraldiari.

Kofradia Eguna kirolez bete zen domekan

ANTXITXIKETALDIA, PELOTA PARTIDUAK ETA HERRI-KIROLAK IZAN ZIREN DOMEKAN Arrateko inguruetakoren protagonista. Horrela, Simon Aldazabal sariaren XIV. edizioan, iazko irabazleak ibilbideari neurria ondo hartu diola erakutsi zuen beste behin. Walter Becerra sestaoarra azkarrena izan zen bost kilometro eta erdiko igoeran, 26 minutu eta 18 segundotan. Marka ezarri zuena Nerea Amilibia izan zen emakumezkoetan: 32 minutu eta 6 segundorekin aurrekoa 48 segundotan hobetu zuen. Pilotan, Etxanizek eta Agirrebeñak osatutako bikoteak 22-14 irabazi zion Arrillaga eta Egaña taldekideek osatutakoari. Herri-kiroletan, aizkolariek eta harrija-sotzaileek jardun zuten lehian goizean eta idi-probak egon ziren arratsaldean. Parte-hartzaileen artean izan ziren Dioni Kortina eta Hodei Ezpeleta eibartarrak, azken hau Bihurriren semea.



Eibartarrak-ek Untzagara ekarri zuen foballa

TALDEAREN EGUNA EGIN ZUTEN LEHENENGO ALDIZ ETA ARRAKASTATSU irten zitzairen Eibartarrak foball taldeko kideei. Goiz eta arratsaldean jardun zuten, batez ere gazte eta haurrei hainbat aukera eskainiz eta foballa gerturatuz; horrela, partidu bikainak jokatu ziren Untzaga erdian foball-3ko torneoan eta giza-futbolin ere une gozoak pasarazi zizkien gaztetxoenei.

Herri Irratia

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAHA BERBA** Irratsaluan erantzungo dizu, eguadiako 12.30etan.
Zure kuxa, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

Izen berriak foball-zaletuaren txapelketan

HAMALAU TALDEREKIN HASI ZEN AURREKO ASTEBURUAN EIBARKO FOBALL-ZALETUAREN DENBORALDI BERRIA: iazko berberak badira ere, lauk izena aldatu dute, babesle berriei esker; eta tartean badago bat oraindik ere sponsorrik ez duena eta izena ere hortik atera duena, bere egorearen berri emoteko. Sinesponsor (lehen Vivaldi) taldearen kasua da aipatutakoa (Xepe Gallastegik ekarritako Villarrealen kamisetekin dihardute) eta Alkideba (lehenago Aguiñaspi),

C. Dental Ekoden Irazabal (lehenago Akats) eta Bar El Caserío (lehenago Eitek) dira izen berrikoak. Hori bai, EzDok orain EzDok - Bar Lanuss deituko da hemendik aurrera.

Lehenengo jardunaldiari dagokionez, Tecnografik gaur egungo txapeliduna ez zen berdinketatik pasatu Sinesponsorrekin jokaturako partiduan. Jardunaldiko berdinketa bakarra izan zen, beste neurketetan honako emaitzak eman baitziren: Durango - K.OX Azkena (4-1), Jose Autos - Somos



Azken denboraldiko sari banaketaren unea, Kopako finala jokatu eta gero. / LEIRE ITURBE

Sporting (4-1), Tankemans - El (4-3), Areto - C. Dental (3-2) Caserío (3-1), Txoko - Ez Dok eta Esmorga - Alkideba (2-1).

Rugbilariak denboraldia prestatzen Arrasaten

AURREKO BARIXAKUAN AURREDENBORALDIKO LEHEN PARTIDUA JOKATU zuten Eibar Rugby Taldekoek Arrasaten, bertan hogeita minutuko hiru zatitan hainbat proba eginez eta berriei eta jubenil mailako hainbat jokalariei aukera emanaz. Guztira, zortzi entsegu lortu zituzten eibartarrek Euskal Ligan, hau da, bi maila beherago, jokatzeko duten arrasatearren aurka. Aurten oso denboraldi gogorra izango du Jose Mari Isasak zuzendutako taldeak Ohorezko B mailan eta, horretarako prestatetan, aste-

buruan Zarautzen aurka jokatu du: talde horrekin galdu zuen iaz lehia ofizial bakarra Eibarko taldeak.



Arrasateko entrenamendu egokia izan zen taldea sasoia hartzen joateko.

Debabarrenako Ane Santesteban mundialetara

DEBABARRENA-KIROLGIK MADRILEN JOKATUTAKO LASTERKETA-REKIN amaitu du denboraldia; proba horretan, Ane Santestebanek 4. postuan amaitu zuen eta Irene San Sebastian 9.a izan zen. Santesteban hilaren 24tik 27ra arte Suitzako Mendrisio hirian jokatu diren txirrindularitzako mundialetan izango da, Ramon González-Arrieta hautatzaileak hala erabakitak. Errepideko proban hartuko du parte, seikotea Eneritz Iturriaga, Vilajosana, Sanchís, García eta Lópezekin osatuz.

Urriaren 4an Donostian **Zurriola Ikastola**

Kilometroak

AUTOBUSAK
irteera: 09.30etan, Ego Gainetik
itzulera: 19.30etan
prezioa: 8 euro

09

ANTOLATZAILEAK:
J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
...eta kitto! Euskara Elkarte

OHARRA
autobus-txartelak hartzeko
AZKEN EGUNA irailak 30

HIRÉKIN MUNDURA

GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

KATU

KALE

BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

Urtero Arrate deituriko emakumeak biltzen dira Arrateak pasata. Eibar eta inguruetatik etorritako jendea egoten da, baina aipatzekoa da hemendik kanpo ere badagoela Arrate deiturikorik, Arrate Sanz Guadalajarakoa kasu. 'Arrateak' domekan bilduko dira Arraten euren eguna ospatzeko.

ARRATE SANZ:

"Asko harritzen dira nire izena entzutean"

- Zelan eduki zenuen Arrate izenekoaren bileren berri?

Prentsaren bitartez. Interneten Eibarren zein gauza gertatzen diren begira egoten naiz sarritan. Diario Vascoren webgunea eta beste batzuk ikusten ditut, eta horrela izan nuen horren berri.

- Nola egon zara Eibarren etorri zaren bakoitzean?

Oso ondo. Harritzekoa da Eibarrek azken urteetan izan duen bilakaera. Adibidez, zazpi urtetan horra joan gabe egon nintzen eta helduekin dena berri-berri ikusi nuen. Aldaketa asko zituen herriak. Ipueruako dorreetan bizi izan nintzen ni eta inguruak oso aldatuak ikusi nituen; Untzagako aldea ere guztiz ezberdina zegoen nik gogoratzen nuenarekin alderatuta eta eskilara mekanikoak ikusi nituen nonahi.

- Noiz egon zara Eibarren azkenengoz?


Orain dela urtebete. Saiatzen naiz urtean behin Eibarrrera joaten, lagunak ikusi, herria bisitatu eta horrelakoak egitera, baita Arrate eguna pasatzera ere; baina umea eta lanarekin gero eta zailagoa daukat.

- Beraz, noiz daukazu bueltatzeko asmoa?

Ezin dut zehazki esan. Aurtan ezin izan naiz joan, radioa apurtu nuelako eta bajan nagoelako oraindik. Baina ahal dudanean joango naiz, segurua.

- Guadalajaran bizi zara. Nola erantzuten dute bertakoek Arrate deitzen zarela entzutean?

Askok eta askok "nola?" esaten didate. Orduan nik "Arrate" erantzun eta "zeinen polita" diote gehienek. Arraroa da eurentzat, zalantzarik gabe. Ohi-



tuagoak daude Nerea, Arantxa edo horrelako beste izen euskaldunak entzutea. Hala ere, Arrate behin edo behin entzun dutenak ere badaude, kirol munduarekin lotzen dutelako, Arrate eskubaloit taldearekin edo txirrindularitzako Arrateko igoerarekin, hemen txirrindularitzarekiko zaletasun handia baitago. Hala ere, ez dute kokatzen non dagoen Arrate.

- Eta nola bizi da Arrate bat Guadalajaran?

Edozein lekutan bezala. Gainera, nire abizenak ez dira euskaldunak; beraz, jendearentzat ez da zailegia niri deitzea (barreak). Bestetik, hemen inguruan Euskal Herriko jende dezente bizi da; badago kolonia txikitxo bat.

- Arrate bat Guadalajaran. Nolatan?

Eibarren jaio nintzen; baina, gurasoak Guadalajarakoak izanik, jubilatzerakoan hona etorri ginen. 22 urte nituen eta, gainera, nire mutil laguna Guadalajarakoa zen; beraz, ni ere etorri nintzen... eta hemen nago.



Bihar iluntzean rock-aren txanda izango da Gaztetxean. / LEIRE ITURBE

Iraila betea Tallarra Gaztetxean

GOGOTSU EKIN DIOTE ASUA ERREKA KALEKO TALLARRA GAZTETXEKOEK

Ikasturteari. Irailerako antolatutako artean ikastaroak, proiektuak eta kontzertuak aipatu daitezke. Astelehenero, 19.00etan, txalaparta ikastaroa dago martxan. Atzo, berriz, 'American Hardcore' izenburuko dokumentala ikusteko aukera izan zen eta bihar (zapatua), 23.00etatik aurrera rock kontzertua eskainiko dute Norman (www.myspace.com/norman-rock) eta Show Business (www.myspace.com/showbusinessrock) taldeek.

Datorren astean, eta proiektuarekin jarraituz, eguenean 20.00etan 'Ni viejos ni traidores' izenburuko dokumentalak Frantziako Accion Directe taldearen inguruko gorabeherak azalduko ditu. Eta hilabetean agurtu aurretik, irailaren 25ean, barazki jantoki makrobiotikoa egongo da martxan. Bazkalosterako solasaldia antolatu dute, maitasun erromantikoari buruz jarduteko asmoarekin. Eta gauean, 22.30etatik aurrera, berriz, rock kontzertua eskainiko du PAM taldeak, beste talderen batek lagunduta.



DYArene sorospen ikastaroa

DYA GIPUZKOAK SOROSLE ETA LEHEN SOROSPEN IKASTAROA EMANGO DU Eibarren, taldeak Pagaegi kalean duen egoitzan. 3 asteko iraupena izango du ikastaroak (urriaren 20ra arte) eta egunero, astelehenetik barixakura emango da, 19.00etatik 21.00etara. Ikastaroa egin eta amaierako frogak gainditzen dituenak sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du. Izena emateko edo informazio gehiagorako 943464622 telefono zenbakira deitu daiteke.

Enpanadaren inguruko jaialdia

AS BURGAS GALIZIAKO ETXEA SORTU ZELA 25 URTE BETETZEN DIRA aurten eta, hori dela eta, hilaren 26rako Galiziako enpanadaren lehenengo jaialdia antolatu dute. Urkizuko parkean garatuko den jaiak 11.00etan hasiko da, Ribeiro ardoa eta enpanada zatiak salgai izango dituen taberna zabaltzearekin batera. 13.00etan, berriz, enpanada lehiaketa hasiko da. Lehiaketako irabazleak 150 euro eta garaikurra jasoko ditu, bigarrenak 90 euro eta garaikurra eta hirugarrenak 60 euro eta garaikurra. 14.00etan sari banaketa ekitaldia hasiko da. Arratsaldean, 16.30etatik aurrera, umeendako puzgarriekin jarraituko du jaiak, 21.00ak arte. Lehiaketa zein bestelako ekitaldiak herritar guztiei zabaldua daude. Lehiaketaren inguruko zehaztasun gehiago jaso nahi duenak, Galiziako Etxera jo dezake (Urkizu, 11 behea, 943206737 telefono zenbakia).




Udal Artxiboa azaroaren 2ra arte itxita

EIBARKO UDAL ARTXIBOA BERE JATORRIZKO LEKURA, UDALETXERA ERAMATEKO beharrek aurrera dira. Azken aldi honetan, udaletxean Artxiboa hartzeko tokia egokitu bitartean, Portalean egon da, baina irailaren 15etik aurrera Artxiboa osatzen duten fondo eta bestelakoak tokiz aldatzen hasi dira eta, horregatik, azaroaren 2ra bitartean ezin izango da kontsultarik eta dokumentuen erreproduzio edo kopiari egin. Artxiboaren inguruko informazio zabala jaso dute Ego Ibarra batzordearen webgunean.

Kantabriako Etxekoen jaiak

AURREKO ASTEBURUAN HASI ZIREN OSPATZEN BIEN APARECIDA Kantabriako babeslearen omenezko jaiak gurean: zapatuan hainbat kirol proba jokatu zituzten eta, ondoren, Ipuruia bolatokian sardina-jana egin zuten Kantabriako Etxekoek. Bihar, berriz, Santanderretik etorritako La Encina abesbatzak emanaldia eskainiko du, 20.00etatik aurrera, San Pio X.a elizan.

Dena dela, jaiak datorren astebururako antolatutakoekin jarraipena izango du: hilaren 26an 'flor' txapelketa jokatu dute eta hurrengo egunean, berriz, mezak, piskolabisak eta lagunarteko bazkariak osatu dute egitaraua.



Kaleetan Kantuz, ikasturtea hasteko prest

UDAKO ATSEDENALDIA ETA GERO, IKASTEN ELKARTEKOAK Kaleetan Kantuz ekimenari berriz ekiteko prest daude. Lehenengo entsegua hilaren 24an (eguna) izango da, San Andres elizako lokaletan. Abes-

teko egingo duten lehenengo irteera, berriz, irailaren 30ean izango da. Untzagan batuko dira, 12.00etan eta handik Astelena frontoira abiatuko dira, Expodintsu azokan emanaldia eskaintzeko.

laburrak

ARRATEKO TXOSNETAKO ZOZKETA

Txosna Batzordeak Arrateko jaietan egindako zozketan honako zenbakiek jasoko dute saria: 189 (Krabelinen lagun birendako gaua) eta 514 (lagun birendako afaria Kantabria jaietxean). Saria jasotzeko azken eguna irailaren 30a izango da. Horretarako, 943-254113 telefono zenbakira deitu daiteke.

1959-AN JAIOTAKOAK

Urriaren 31n ospatuko da 1959. urtean jaiotakoen bazkaria, Arrate hotelean. Joan nahi dutenek 80 euro sartu beharko dute Banestoko kontu korronte honetan, izen-abizenak adierazita: 00303434740000405271.

PIZTIARIOA KM-N

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak 'Piztiarioa' izenburuko erakusketa hartuko du irailaren 23tik aurrera. Baroja Colletek eta Txilikuk elkarlanean sortutako lan berezia azaroaren 7ra arte egongo da ikusgai, Ganbara aretoan, martitzenetik zapatuta, 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.



Asier Ezenarro

Indigenak

Aurreko astean Kanadako enpresagizon batzuk egon ziren Eibar bisitatzen, Membertou tribuaren ordezkariak tartean. Oraindik gure buruan daukagun indioen irudi nahiko desberdinakin, gainera. Egun hauetan ere, Madrilen Eyo Morales Boliviako presidentek ekitaldi batzuk egin ditu eta Estatuko gobernuarekin bildu da. Amerikan zehar mugimendu indigena asko daude, ideologikoki anitzak: batzuk ezkerreko erakundeetatik gertu daude, beste batzuk bakarrik mugimendu etniko modura aurkeztu dira. Mendebalderako mesfidantza mendebaldetik datozen irtenbideetarako heldu da. Fausto Reinaga Boliviako pentsalari indigenak Europatik Andeetara itzuli zenean hau idatzi zuen: *“Europak bere hizkuntza, erlijioa, historia, kultura eta artea ezarri dizkigu. Orain iraultzaren bere ideia inposatu nahi digu”*. Sasoi hartan, 60. hamarkadako ezkerriar gerrilak sortzen ari ziren eta, askotan, indigenek ez zuten babestu eta ulertu mugimendu horiek. Askotan entzun diet filosofo marxistek kritika gogorak egiten antropologoiei. Marxista askok esaten dute etnologak liluratuta ibili direla “basati onaren mitoa” sinetsi dutelako eta mitifikatu Colónen aurreko Amerindia. Izan daiteke. Euren arrazoi zatia dute filosofo marxistek indigenismoa kritikatzeko; gainera, talde batzuk Europatik zuzenduta ibili dira. Chiapasen, adibidez, Nazioarteko Eliz Kontseilua, Amsterdanen dagoen erakunde protestantea, indigenismoa bultzatzen eta laguntzen ibili da. Baina, bestalde, filosofo marxistek, Gustavo Bueno adibidez, ondo egingo lukete herrien arteko desberdintasunak ikertzen gehiago interesatuko balira eta ez bakarrik irri egiten etnia batek bere eskubide nazionalak eskatzen duenean. Eta horrek Euskal Herrietako eskubideentzat ere balio du. Edo oraindik Gustavo Bueno jauna Hegelen ideia zahar haiekin al dabil? Oraindik sinesten du “historia gabeko herriak” daudela?

Kofradia eta baserritarrak izan ziren protagonista domekan

DOMEKAN KOFRADIA ETA BASERRITAR JUBILATUEN EGUNA OSPATU ZEN ARRATEN. Eguna goizean goizetik hasi zuten Simon Aldazabal antxitxiketaldian parte hartu zuten 66 korrikalariak, baina eguneko ekitaldi nagusia, duda barik, santutegian ospatutako meza nagusiak osatu zuten: Gorrotxategi eta Narbaiza bertsoariak giotutako mezan Kezka dantza taldekoek ere jardun zuten eta, ondoren, Arrate egunean egin zuten bezala, Ama Birjinaren irudia prozesioan atera zuten, Usartza Txistulari Bandakoek lagunduta. Eguraldia lagun, jende asko animatu zen Arraterara igotzen. Urteroko paella lehiaketak ere aurreko edizioetan baino sukaldari gehiago batzea lortu zuten eta paella moeta ezberdinak aurkeztu zituzten, gainera. Azkenenean, Mireia Alonsok (Krabelin jate-txea), Xabier Osak (Urgain jate-txea) eta Josu Mugerzak (Belaustegi jate-txea) osatutako epaimahaiak Heraclio Etxeberriak eta Agustin Lahidalgak osatutako bikotearen paellari sari nagusia ematea erabaki zuten, besteak beste marraskiloak zermatzan errezetarengatik. Eta sukaldatzen jardun ondoren, jakina, bazkal-

tzeko ordua ailegatu zen: zelai inguruko mahaiak bete egin ziren eta aurten Krabelin jate-txeak hartu zuten baserritar jubilatuen bazkarian ere lagun mordoa batu zen. Eta arratsaldeko idi-probekin agurtu zuten eguna, datorren urtera arte.



Paella lehiaketak eta herri-kirolek jendearen arreta piztu zuten. / LEIRE IURBE

EUSKARAREN

GAZTELANIATIK EUSKARARAKO ABENTURA BIKOTEETAN. EAEko 27 bikoteren kasuak ikertu dituzte. Ezaugarri berekoak: lehen euren arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen eta, aldaketa baten ondoren, harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasatu da. Jaurlaritzako aurreko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bazuen ildo bat, familia transmisioaren testuinguruan, hizkuntza ohituren aldaketaren fenomenoak aztertzeko. Hari horri tiraka, Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteak bilatu eta aztertu ditu, Buruntzaldeko (Gipuzkoa) familia bidezko transmisioa indartzeko egitasmoaren Koordinazio Batzordearen laguntzaz. Bikote gehienek honako strategiari jarraitu diote: dosifikazioa, errazetik zailera joanez; nekatutakoan eta “agobiatutakoan” gaztelania ere erabiliz; une zehatz batean pausoa ematea erabakiz; bat bestearen irakasle izanez; eta seme-alabekin erabat euskaraz eginez.


TXOKOA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MADDI (oporretan egin zittuan) eta PAULE (hiru urte astelehenian), urtiak bete dozuez-eta. Aitaxo, amatxo eta Xabierren partez.




Zorionak, ANA M. eta SILVERIO, abuztuaren 6xan 50 urte bete zenduzelako ezkontuta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, PEPE eta ANGELES, bixar urrezko ezteiak egingo dozuez-eta. Famelixa eta lagunen partez.




Zorionak, MALEN eta INTZA, zuen 4. eta 2. urtebetetzietan. Segi horren alai eta jaso muxu haundi bat etxekuen partez. Muaka!




Zorionak, YURENE, bixar urtia beteko dozu-eta. Aittitta-amama, birramama eta amabitxiaren partez.



Zorionak, MADDI Gutiérrez Lete, hareñegun bost urte egin zenduaz-en-eta. Etxeko guztien partez.




Zorionak, MAIALEN Salaberria Goikoetxea, zure lehelengo urtia betetzerakuan. Poza besterik ez dozu ekarri. Etxekuen partez.



Zorionak, EGOITZ, abuztuaren 20xan urte bi egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUCIA Lorizate, gaur sei urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat famelixa eta lagunen partez.



Zorionak, AIMAR (abuztuaren 15ian egin zenduaz-en) eta MALEN (domekan egingo dozuz) zuen urtebetetziengaittik. Muxu bero bat aitaxo eta amatxoren partez.

JAIOTAKOAK

- Haimar Gallego Martín. 2009-IX-4.
- Uxue Gómez Silbares. 2009-IX-6.
- Nahia Mora Córdoba. 2009-IX-7.
- Xabier Pérez Ibáñez. 2009-IX-8.

DENBORAPASAK

SUDOKUJA

	6		5	9		
7	9		8	4		
	1		7	9	3	8
1			6		5	
6	5	7	1			
8			9		1	
9		1	5			
			7	8		4
4	8				1	

7	8	5	9	6	3	2	4	1
3	2	4	8	1	7	6	9	5
1	6	9	2	5	4	3	8	7
6	9	2	4	7	1	8	5	3
5	7	8	6	3	9	4	1	2
4	3	1	5	2	8	9	7	6
2	4	6	7	9	5	1	3	8
8	1	7	3	4	6	5	2	9
9	5	3	1	8	2	7	6	4

AURREKOAREN EMAITZA

HILDAKOAK

- Justa Txurruka Osa. 75 urte. 2009-IX-12.
- Julian Telletxea Aztarain. 78 urte. 2009-IX-13.
- Mercedes Aizpiri Zubiaurre. 74 urte. 2009-IX-13.
- Jose Santos López. 89 urte. 2009-IX-13.

horoskopoa

ARIES

Jende guztirengandik aparte egotea nahiko duzu, bakardadean. Ondo pentsatu beharreko kontua daukazu buruan eta denbora beharko duzu.

TAURUS

Horrela jarraituz gero, ondorio latzak jasango dituzu. Egoerari buelta ematen saiatu beharko zinateke beranduegi izan baino lehen.

GEMINI

Zuk bai pazientzia! Nola jasan dezakezu alboan duzun hori? Meritu handia daukazu, baina pazientzia agortzen joango zaizu pixkanaka.

CANCER

Besteek esan dezakete nahi dutena, baina buruan duzuna egiteko konbentziturata bazau, zergatik ez egin aurrera? Zure esku dago.

LEO

Ez duzu agian A gripea izango, baina nahiko makal ibiliko zara hurrengo egunetan. Onena hasieratik sendagilearengana joatea izango da.

VIRGO

Barixakua noiz heldu zain egongo zara: egun eskasak pasako dituzu eta datorren asteko horoskopoa zer dioen jakin nahi izango duzu.

LIBRA

Badakizu besteek zer entzun nahi duten eta berba goxoak besterik ez dituzu eurentzat. Engainatzen zabilta? Norbait konturatzen bada...

SCORPIUS

Pertsona baten bila ibiliko zara, zoroaren pare. Zerbait garrantzitsua diozu esateko eta ausartuko zara behingoz. Zorte on!

SAGITTARIUS

Aste gogorra izan zen aurrekoa, baina oraingoa guztiz ezberdina izango da. Edozer gauza egiteko prest eta gogotsu egongo zara.

CAPRICORNIUS

Gauzak argi dituzun momentutik irtengo zaizkizu ondo gauzak; ordura arte noraezean ibiliko zara. Pentsatu pixkat eta nahi duzuna erabaki.

AQUARIUS

Barruko beroak txoratuta edukiko zaitu hurrengo egunotan. Hobe duzu, bero hori elkarbanatzeko, alboan beste bateren bat izatea...

PISCIS

Gero eta lotsa gutxiago daukazu eta ingurukoek ederki igarri dute hori. Hala ere, ez zaitetz pasa eta ez bihurtu lotsagabe hutsa.

Zapatua 19

BIEN APARECIDA JAIAK

20.30.- La Encina abesbatzaren emanaldia, San Pio X.a elizan.

KONTZERTUA

23.00.- Norman eta Show Business. Tallarra Gaztetxean.



Domeka 20

ARRATE IZENEN KOEN JAIA

09.00.- Arrate izenekoen jaiaren XI. urteurrena. Arratera igoera, pauosen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia.


Eguena 24

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DOKUMENTALA

20.00.- 'Ni viejos ni traidores' (Frantziako Accion Directe taldearen inguruan). Tallarra gaztetxean.



ikastaroak

- Hankamotxak Bertso Eskola.

Nork: LH eta DBHko ikasleek zein helduek. Izen-ematea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartean

- Debako Arte Eskola.

Izen-ematea eta informazioa: 943191804 telefono zenbakian edo www.debarte.net helbidean.

- Afariketan.

Izen-ematea: Irailak 21 eta 22an, 16.00etatik 18.00etara, ludoteketan (Amaña, Urki eta Urkizun). Irailak 23, 24 eta 25ean, 10.00etatik 13.00etara, Portalean. Informazioa: Astixan (943206231 telefono zenbakian).

- AEK Euskaltegia.

Izen-ematea eta informazioa: Irailaren 28ra arte, AEK Euskaltegia (943201379 telefono zenbakian).

- Udal Euskaltegia.

Izen-ematea eta informazioa: Irailaren 28ra arte, Udal Euskaltegia (943700912 telefono zenbakian).

- Esperientzia Eskola.

Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.

- Sorosle eta Sorospen ikastaroa.

Noiz eta non: Urriaren 20tik aurrera, astelehenetik barixakura, 19.00etatik 21.00etara DYako egoitzan (Pagaegi kalea, 5).



lehiaketak

- Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.

- Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia.

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.

- Sanandresak 2009 kartel lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.



erakusketak

– Irailaren 20ra arte


JEAN CLAUDE-N GAUTENA erakusketa.
Topalekuan.

– Irailaren 30era arte

DONES elkartekoen argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.

PEDRO MORAren argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

MATEO GUILABERTen argazki erakusketa.
Deustuko Beer House tabernan (Bilbo).



"Gautena", Jean Claude-n erakusketa ikusgai dago Topalekuan.

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA.

Ikerketa esparrua: Artea. Eskaerak eta informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

GOTZON GARATE BEKA 2009.

Ikerketa esparrua: Elgoibarko Toponimia. Eskaerak eta informazioa: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila (943 74 43 66 euskara@elgoibar.org)

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro ume bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren

31ra bitartean jaiotakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro gazte bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

KOADRILENTZAKO LOKALAK.

Eskaerak eta informazioa: Irailaren 30era arte, Pegoran.

JUBILATU ETXEENDAKO.

Eskaerak eta informazioa: Irailaren 18ra arte, Pegoran.

famaziak

18, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

19, zapatua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

20, domeka

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

21, astelehena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

22, martitzena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

23, eguaztena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

24, eguena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

25, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduero). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduero. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Txaltza-Zelai kalean pisua salgai. 67 m². Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 607-818396.
- Eibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Balkoi bi. Dena kanpora begira. Sartzeko moduan. Tel. 943-206322 edo 943-200547.
- Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

1.2. Errentan

- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 616-207343.
- Bikote arduratsua pisua hartuko luke Eibarren alokairuan. Tel. 687-388493 edo 638-520784.

1.3. Konpartitzeko

- Gela alokagai Legarren, zentrotik gertu, etxean bi izateko. Kalefakzioa eta wifi. Tel. 620-633434.

1.4. Etxe-trukaketa

- Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegaineko geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Astra salgai. 56.000 km. 14 urte. 4.000 euro. Tel. 626-933850.
- Mercedes Sprinter furgoneta-etxea salgai. 4 lagunendako. Sukaldea, komuna, ohe bi, dutxa eta hozkailua. Berria. 40.000 euro. Tel. 656-768944.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizona eskaintzen da elektrizitate konponketak egiteko. Tel. 652-779800.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.
- Neska eskaintzen da 09.00etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 943-751950 edo 650-113213.
- Neska eskaintzen da 08.30etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 659-126852.
- Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.00etara garbiketa lanetarako. Tel. 634-256471. Yamaira.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-192683.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Gauak barne. Tel. 610-632782.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478. Lorena.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero lanetarako. Tel. 658-719676.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 667-323138.
- Mutila eskaintzen da sukaldari edo laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 630-531469.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 651-836353.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-908730.
- Emakume arduratsua eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-048823.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeak edo bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
- Magisteritzako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 679-237611.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia. Tel. 943-702357 edo 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 618-828506.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta tabernetan lan egiteko. Asteburuak barne. Tel. 630-404538.
- Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 19.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 647-044031. Marian.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 653-402884.
- Neska eskaintzen da arratsaldez edozein lanetarako. Tel. 690-791689.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-702357 edo 652-047223.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-736539 edo 943-257901.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeak, tabernak edo pegoak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-181542 edo 617-000972.
- Haur-Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldez. Esperientzia. Tel. 626-752117.
- Pertsona arduratsua eskaintzen da tabernak, pegoak eta sozietateak garbitzeko. Tel. 687-388493 edo 638-520784.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai/Erosgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 678-305927.
- Gizona eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, sukaldari-laguntzaile, garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-552386.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754. Indira.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 943-207285 edo 660-073781.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan asteburuetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.
- Pladurista eta kamarero moduan esperientzia duen mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-078908.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau osoan. Tel. 648-196651.
- Soinuan masterra duen neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 629-771791.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 638-938307.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 616-822781.
- Gizona eskaintzen da furgonetarekin banaketa lanak egiteko. Tel. 671-141677.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 638-482478.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 630-410724. Dora.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639 edo 943-743618.
- Gizon gaztea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 652-047223.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 686-435056.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Egunez zein gauzez. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-655509.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.
- Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-113509.

- Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-724192.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 616-260793. Luis Eduardo.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da gosari, bazkari eta aforloduatan laguntzeko. Tel. 626-933850.
- Zabalduko den batzoki berrirako sukaldaria eta kamareroak behar dira. Tel. 675-711597.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
- Eibarko hortz-klinika baterako laguntzaile behar da. Beharrezkoa da esperientzia izatea. Kurrikuluma bidaltzeko: 943-208475 fax zkia.
- Neska behar da tabernan arratsaldez lan egiteko. Tel. 943-208130.
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 695-751648.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- EGA prestatzeko irakasle partikularren bila nabil. Tel. 943-821353. Esther.
- DBHko klase partikularrek emateko pertsona behar da. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

- Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrek emango lituzke. DBHra arte. Tel. 662-113509.
- Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrek emango lituzke. DBHra arte. Tel. 685-724192.

6. Denetarik

6.1. Salgai/Erosgai

- Konpresore handia salgai. Arbakom markakoa. Erabili gabe. 200 euro. Tel. 606-949658.
- Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 716-801304.
- Egongelarako altzariak salgai. la berririak. Prezio onean. Tel. 943-120308.
- Bigarren eskuko ordenagailua (portatila edo mahaikoa) erosiko nuke. Tel. 943-702264.
- Setter ingles arrazako txakurrak salgai. Prezioa: 150 euro. Tel. 645-005943. Jon.

6.2. Eman

- Arratoiak harrapatzeko katu zein katakumeak oparitzen ditut. Tel. 615-729400. Igor.
- Oso mantoa eta polita den katakumeak etxea behar du. Hiru hilabete ditut eta egurtua izan da. Tel. 656-758793.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Abuztuko lehenengo astean argazki-kamara galdu nuen Barrera edo Barakaldo inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 665-792861.



Tfnoa. 943 120108
Azitain Industrialdea, 3 - H



eraikuntzak

erreformak

igeltseritza

GIPUZKOA

BIZKAIA

ARABA

NAFARROA

IPARRALDEA

KANTABRIA

ASTURIAS

GALIZIA

Sagardoo

Urriak 3, zapatua

12.00-13.30

18.00-amaitu arte

UNTZAGAN

Antolatzailea:

...eta kitto!

Sagardotegiak:

Arizia, Artola, Astiazaran-Iruin, Bereziartua, Gartziategi, Isastegi, Mina, Oialume Zar, Otsua Enea, Txindurriturri, Rezola, Zapiain, Axpe, Iturrieta-Trebiñu, Larraldea, Txopinondo, El Muro-Tio Sidro, Cortina, Menendez, Manzanova



EIBARREN

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**

SOLOZABAL
autoeskolak

**Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78**

BERRIA: T. Etxebarria, 7 Tel. 943 70 23 84



eibartarren
irribarrea pizten

 **bista eder**
clinica dental - hortz klinika

Inplantologia eta Estetika

Bista Eder Hortz Klinika

bista eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75